Osakidetza

GASTEIZKO
ERIZAINTZAKO UNIBERTSITATE - ESKOLA
ESCUELA UNIVERSITARIA DE ENFERMERÍA
DE VITORIA - GASTEIZ

eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

ZORU PELBIKOAREN MUSKULUEN ENTRENAMENDUAREN ERAGINAK GERNU- INKONTINENTZIA DUTEN EMAKUME POSMENOPAUSIKOETAN

Literaturaren azterketa kritikoa

Gradu Amaierako Lana

EGILEA: IRATXE GANZABAL BARINAGA
GASTEIZKO ERIZAINTZAKO UNIBERTSITATE- ESKOLA,

2021EKO MAIATZAREN 3AN

HITZ KOPURUA: 5.961

ESKER ONAK

Yolandari,

beti laguntzeko prest egoteagatik eta zure ezagutzak nirekin partekatzeagatik.

Plazer bat izan da.

Familiari eta lagunei,

ibilbide honetan ezinbesteko sostengua izateagatik.

AURKIBIDEA

LABURPENA **4**
ESPARRU KONTZEPTUALA ETA JUSTIFIKAZIOA **5**
HELBURUA **11**
METODOLOGIA **12**
EMAITZAK ETA EZTABAIDA **15**
ONDORIOAK ETA MUGAK **24**
BIBLIOGRAFIA **26**
ERANSKINAK **30**

1. ERANSKINA. ICIQ- UI SF galdetegia 30
2. ERANSKINA. IIQ galdetegi luzea eta IIQ- 7 galdetegi laburra 31
3. ERANSKINA. Kontzeptu- taula 32
4. ERANSKINA. Bilaketa- taula 35
5. ERANSKINA. Ikerketa kuantitatiboko azterketen irakurketa kritikorako gidoia 47
6. ERANSKINA. Fluxu- diagrama 55
7. ERANSKINA. Laburpen- taula 56
8. ERANSKINA. Zuhaitz- kategoriala 65

LABURPENA

Esparru kontzeptuala eta justifikazioa: Gernu- inkontinentzia (GI) nahigabeko gernu isurketaren kexa bezala definitzen da, fisikoan eta bizi- kalitatean eragiten duena. Posmenopausian dauden emakumeen %50ak baino gehiagok gaixotasuna pairatzen du, beste arrisku faktoreen artean, menopausia osteko defizit hormonalarekin erlazionatzen delako. Tratamendu kontserbatzaile moduan, zoru pelbikoaren muskuluen entrenamendua (ZPME) edo Kegel ariketak daude, zoru pelbikoaren muskuluak (ZPM) indartzeko duten eraginkortasunagatik. Gaixotasunaren inpaktua osasunean, bizi- kalitatean eta osasun sisteman kontuan izanda, ZPMEren eraginak aztertzea interesgarria da, erizaintzatik ebidentzian oinarritutako heziketa eman ahal izateko.

Helburua: ZPMEren edo Kegel ariketen eragin fisikoak GIan eta bizi- kalitatean aztertzea GI duten emakume posmenopausikoetan.

Metodologia: Literaturaren azterketa kritikoa egiteko, Cinahl, Cochrane, Cuiden, Embase, Lilacs, Medline, Pubmed eta Scoups datu- baseetan bilaketak egin dira. Honekin batera, Joanna Briggs Institute (JBI), National Institute for Health and Care Excellence (NICE) eta Registered Nurses' Associacion of Ontario (RNAO) ebidentzian oinarritutako erakundeetan bilaketak egin dira. Amaitzeko, eskuzko bilaketak egin dira Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) liburutegian eta hainbat aldizkari elektronikoetan. Hautaketa prozesuaren ostean, Gradu Amaierako Lanean (GrAL) 15 artikulu barneratu dira.

Emaitzak: ZPMEren eraginak GIren sintomatologian eta bizi- kalitatean ikertu dira. Sintomatologiaren barnean, gehien ikertu den aldagaia gernu- galerena izan da, murrizpen esanguratsuak lortuz. Ondoren, gernu- egite maiztasuna, txiza egiteko urgentzia eta nikturia ikertu dira. Hiruretan hobekuntzak somatu dira, baina ikerketa gutxi daude emaitzak orokortzeko. Azkenik, bizi- kalitateari dagokionez emaitza esanguratsuak lortu dira ZPMEren ostean. Honen barnean, sexu- funtzioa eta eguneroko bizitzako jarduerak (EBJ) aztertu dira, hobekuntzak somatu direlarik.

Ondorioak: Ikerketa gehienek, GIren sintomatologia aztertu dute, bizi- kalitateari garrantzia gutxiago emanez eta gaixotasun bezala landu beharrean, kexa bat bezala landuz. Hortaz, ZPMEak abordatze multidiziplinarra duen eta GIren sintomatologia murrizten zein bizi- kalitatea hobetzen duen tratamendua da, beste terapiekin konbinatu daitekeena. Dena den, hau guztia baieztatzeko ikerketa gehiago egiteko beharra dago.

Hitz- gakoak: Zoru pelbikoaren muskuluen entrenamendua; Kegel ariketak; gernu- inkontinentzia; emakume posmenopausikoak; eragin fisikoak; bizi- kalitatea.

ESPARRU KONTZEPTUALA ETA JUSTIFIKAZIOA

2002an, International Continence Society- k (ICS) GI nahigabeko gernu isurketaren kexa bezala definitu zuen. Hala ere, ICSek GI hobeto deskribatu beharko dela dio, maiztasuna, larritasuna, arrisku faktoreak, eragin soziala, eragin higienikoa, bizi- kalitatean duen eragina eta norberak eskatzen duen laguntza zehaztuz (1). ICSren arabera oinarrizko GI motak hurrengoak dira:

Esfortzuzko GI (EGI)

Esfortzu fisikoarekin erlazionaturiko abdomen barneko presioaren igoerak sortutako ezborondatezko gernu- galera da: dominiskiku, barre, eztula edo korrika egitean. Erresistentzia uretralaren mekanismoen akats batengatik ematen da, hala nola, hipermugikortasun uretrala edo esfinterren gabezia intrintsekoa.

Urgentziazko GI (UGI)

Urgentziarekin batera (mikzionatzeko bat- bateko nahi argia eta bizia, itxaroten zaila dena) bat-batean agertzen den ezborondatezko gernu- galera da. Detrusore muskuluaren ezborondatezko uzkurdurarengatik sortzen da (uzkurdura asko sortzen direnean, detrusore hiperaktiboa deritzo).

GI mistoa (GIM)

Ezborondatezko gernu- galeraren pertzepzioa da (2), esfortzuekin eta komunera iristeko denbora ez izatearekin erlazionatzen dena (3). GI mota hau detrusorearen hiperaktibitatearen eta esfinterren inkonpetentziarengatik ematen da (4).

GI arazo sozial garrantzitsua da, emakume posmenopausikoen %50 baino gehiagori eragiten diolako eta prebalentzia aurrera doalako urtetik urtera (5). Gainera, Sociedad Española de Ginecología y Obstetricia- ak (SEGO) dioen bezala sindrome geriatrikotzat hartzen da, 65 urte baino gehiagoko adinekoetan duen prebalentziagatik (2,6). GI emakumeetan gizonetan baino 2-4 aldiz ohikoagoa da, emakumeetan maskuriko muskuluen eta zoru pelbikoaren (ZP) disfuntzioekin duen erlazioagatik (7). Egin diren ikerketa epidemiologikoek emakumeen %20-%50ak GI duela diote, egoitzetan, aldiz, adineko emakumeetan %50- %60ak. Europan GIren prebalentzia adina aurrera doan heinean zuzen proportzionalki handitzen da: heldu gazteetan %20- %30, adin ertainekoetan %30- %40 eta adin aurreratukoetan %30- %50 (2). Emakumearen bizitzan zehar 2 intzidentzia puntu aurkezten dira: 45- 54 urteen artean eta 60 urtetatik aurrera (batez ere, 75- 84 urteen artean) (4).



Irudia 1. Esfortzuzko, urgentziazko eta gernu- inkontinentzia mistoaren prebalentzia adinaren arabera.

Aoki eta besteek egindako ikerketaren grafikan (7), GI moten prebalentziak adinaren arabera ikusten dira, non EGIren prebalentzia gorena adin erdiko emakumeetan ematen den, eta 50 urtetik aurrera UGI eta GIMren prebalentziak handitzen diren. Beraz, esan daiteke EGI ohikoagoa dela emakume premenopausikoetan; UGI eta GIM, aldiz, posmenopausikoetan (2). Ezberdintasun hau, menopausiak UGI garatzeko arrisku- faktore garrantzitsua delako ematen da (4).

Argitu beharra dago, menopausia eta posmenopausia ez direla kontzeptu berdinak. SEGOren hitzetan, menopausia azken hilerokoaren data da eta obulutegiek jarduera folikularraren beherakadagatik hormonak ekoizteari uzten diotelako gertatzen da. Menopausia baieztatzeko emakumea 12 hilabetez amenorrearekin egon behar da. 45- 55 urteen artean ematen da, batez besteko adina 50- 51 urtekoa delarik (40 urterekin baino lehenago agertzen denean menopausia goiztiarra deritzo) (8). Posmenopausia, aldiz, International Menopause Society- k (IMS) dionez, azkenengo hilerokoaren osteko etapa da eta ez du noiz arte irauten duen definitzen. Azken hau, Osasun Munduko Erakundeak (OME) emandako definizioan oinarritzen da (9,10). Aitzitik, SEGOk 10 urte irauten duela dio (8). Beraz, ikusten da oraindik ez dagoela posmenopausiaren amaieraren data finkorik eta autoreak ez direla adostasun batera iritsi.

Emakumeetan GIren arrisku- faktore oinarrizkoenak adin aurreratua, menopausia, erditze-kopurua, erditze baginala (11,12), adin aurreratua erditzean (13), arnas- aparatuko asaldurak, obesitatea, diabetes mellitusa eta GIren aurrekari familiarrak izatea dira. Beste faktore batzuen artean kirurgia ginekologikoa, gernu- infekzioak, narriadura kognitiboa eta funtzionala, gaixotasun neurologikoak, tabakismoa, sedentarismoa, depresioa, bizkarrezurraren ardatzaren asaldurak, maskuriko lepoko edo uretraren lesioak (4,11) eta arraza zurikoa izatea daude (14).



Irudia 2. Gernu- inkontinentziaren historio naturala (14).

Hala ere, menopausia GI eragingo duen ZPren disfuntzioaren arrisku faktorea bezala identifikatzen da (4), etapa honetan ematen den estrogenoen beherakada bortitzak muskulu perinealen tonuaren galera eta flexibilitatearen murrizketa eragiten duelako (15,16). Gainera, defizit hormonalak masa muskularraren galera eta kolagenoaren kalitatea gutxiagotzen du, organo pelbikoen euspena eta ZP ahulduz. Horrez gain, baskularizazioaren atrofia ematen da. Estrogenoen defizitak lubrifikazio baginalaren beherakada esanguratsua dakar eta ZPren ahultasunarekin konbinatuz, sorgortasun baginala eta orgasmoen intentsitatearen murrizpena pairatzeko arriskua handitzen du (erlazio- sexualetan mina izatea eragiten dute, hots, dispareunia) (17). Eragin fisiko hauek, Menopausiaren Sindrome Genitourinarioaren (MSG) sintomak dira (dispareunia, lehortasun baginala, azkura, GIa…) eta posmenopausikoen %50ak pairatzen du (18).

GIren diagnostikoa egitea zaila da, pairatzen duten emakumeen %75ak ez duelako lehen mailako arretan sintomen berri ematen, lotsagatik, informazio faltagatik edo tratamenduaren ideia okerra izateagatik (19). GIren diagnostikoa egiteko edota larritasuna baloratzeko beste frogen osagarri bezala baliozkotuak dauden galdetegiak erabiltzen dira askotan. Horien artean erabilienetarikoak: Alde batetik, International Consultation on Incontinence Questionnaire- Urinary Incontinence Short Form (ICIQ- UI SF) galdetegia dago (*1. eranskinean* kontsulta daitekeena), inkontinentziaren maiztasuna, larritasuna eta GIak bizi- kalitatean duen eragina neurtzen duena. 0- 21eko puntuazioa izan dezake eta 4 aldagai baloratzen ditu: GIren maiztasuna, gernu-galeraren kopurua, GIren eragin orokorra eta autodiagnostikoa (20). Bestalde, Incontinence Impact Questionnaire (IIQ- 7) galdetegia dago (*2. eranskinean* ikusgai dagoena), GIak bizi-kalitatean duen eragina baloratzen duena, GIren zeinu eta sintomak baloratu gabe (21).

GIak ez du bizitza arriskuan jartzen, baina negatiboki eragiten du osasunean eta bizi- kalitatean (22). Bizi- kalitatea norberaren bizi- posizioaren pertzepzioa da, helburu, itxaropen, estandar eta kezkak, kultura eta balio- sistemen testuinguruan erlazionatzen dituena. (23). GIak sortzen dituen

eragin fisikoei dagokionez min muskulueskeletikoa, nekea, loaren nahasteak, dermatitisa eta gernu- galeren usain desatseginak daude (24).

Horrez gain, EBJk murriztu eta aisialdiko jarduerak konprometitu ditzake (higiene intimoa bermatzeko aukerak ez izateagatik, sintomen larritasunagatik, EBJ ugari egiteko beharragatik, komunak gertu ez izateagatik…) (25). Bestalde, bizitza sexuala baldintzatzen du eta emakumeen %25ak dio GIk beraien bizitza sexuala murriztu duela, sexu- gogobetetze ezak beraien sexu- kide eta norbere bizi- kalitatea murriztuz (26). Honen arrazoiak sexu- harremanetan penetrazioarekin eta orgasmo momentuarekin sortzen diren gernu- galerak (27), gaueko gernu- galerak UGIgatik eta ohea buztitzeko beldurra izan daitezke (22). Eragin guzti hauengatik, GI pairatzen duten emakumeek gaixotasun psikologikoak izateko arriskua daukate, batez ere, depresioa eta antsietatea (24,26).

Egun, GIrako dauden tratamenduak 5 taldetan banatzen dira: jokabidezko terapia (pisu galera, likidoen murrizketa, ZP mintzen dituzten kirolak ekiditea eta maskuriaren entrenamendua) (5), tratamendu aringarriak (gailu oklusiboak, zundak edo xurgatzaileak erabiliz) (28), tratamendu farmakologikoa (estrogenoak, beta- adrenergiko agonistak, farmako antikolinergikoak eta OnanbotulinumtoxinA), tratamendu kirurgikoa (kolposuspentsioa edo tentsio gabeko bandak) (29) eta ZPME. Azken honek, ZP osatzen duten muskuluen indarra handitzea du helburu.

ZP edo perineoa muskulu aponeurotikoen eta lotailuen sistema bat da, abdomenaren beheko zatia eusten duena eta organo pelbikoak jarrera egokian zein suspentsioan mantentzen dituena (15,17). Egitura horietaz gain, azalez, erraiez, gorputz erektilez, nerbioz, odol- hodiz eta zuloez osaturik dago. Maskuria, umetokia eta ondestea perineoak osatzen duen hamaka moduko egituraren bitartez eusten dira, pelbisaren ertzetik hedatzen dena, uretra, bagina eta ondestea inguratuz, azkenean sakro eta kokzixean txertatzeko (16). ZP osatzen duten muskuluak klitori inguruan, maskuriaren oinarrian, irekiera baginalean eta ondestean kokaturik daude (15).



Irudia 3. Zoru pelbikoa (4).

ZPren funtzioen artean kontinentzia mekanismoetan, mikzioan eta harreman- sexualetan parte hartzea bereizten dira (16). Beraz, ZP osasuntsu mantendu ezean, GI eta disfuntzio- sexualak bezalako 2. mailako patologiak ager daitezke (30).

1984. urtean Arnold Kegel ginekologoak ZPMEren eraginen ikerketa lana egin zuen (15), horregatik ZPME Kegel ariketa bezala ezagutzen dira (31). Kegelek ZPMen errehabilitazioak gernu- galerak eta ahuldura perinealaren sintomak arintzen edo desagertarazten zituela aztertu zuen. Perineoaren muskulu ildaskatuen inerbazioa borodatezkoa da, baina beheko gernu-aparatuaren inerbazioa nerbio- sistema autonomoaren menpe dago eta ariketen errepikapenak eginez gero borondatezko mekanismoa autonomoki ezarri daiteke. ZPMEren helburua tonu muskularra eta organoen euspena hobetzea (EGIn) eta uretra ixteaz arduratzen diren esfinterren zuntzak lantzea izango da (UGIn) (30).

Kegel ariketak ZPMak uzkurtu eta erlaxatzean oinarritzen dira, errepikapenak eginez. Hori lortzeko, ZPren zein inkontinentziaren fisiopatologia ulertu behar da eta landuko diren muskuluak identifikatu behar dira, emakume asko ez direlako perineoa identifikatzeko gai izaten. Ondoren, ariketak egiteko unea dator, uzkurdura geldoak (uzkurdura mantendu eta gero erlaxatu) eta uzkurdura azkarrak eginez (ahalik eta denbora gutxienean uzkurtu eta erlaxatu) (15). Ariketekin hasi baino lehen maskuria hustuta egon behar da (4).

Ariketak eserita (15) edo dekubito supinon zein lateralean egin daitezke. Hankak banatuak egon behar dira eta toraxaldea erlaxatu behar da (16). Entrenamendu jarraia eta erregularra eginez gero (esnatzerakoan eta oheratzerakoan egitea gomendatzen da) hobekuntzak 10- 20 asteen artean somatuko dira (15). Egun, ez dago entrenamendu mota bat jarraitzeko adostasuna eta literaturak proposamen asko biltzen ditu (32).

GI ZPren disfuntzioen artean nagusienetarikoa izan arren, oso gutxi abordatzen da lehen mailako arretan. Honen arrazoia, emakumearen egoeraren balorazio eskasa eta diagnostiko etiologiko zehatzik ez egitea izan daiteke, automatikoki neurri aringarriak gomendatuz (xurgatzaileak) eta errehabilitazioa baztertuz (16). Neurri hauek gaixotasunaren maneiuan laguntzen dute, baina ez dute gaixotasuna sendatzen ez bizi- kalitatea hobetzen (28). GI gaixotasun bat izango ez balitz bezala hartzen da askotan, adina eta menopausiarengatik normaltzat hartzen den egoera bat bezala kontsideratuz (25). Benetan horrenbeste eragin sortzen dituen gaixotasun bat normaltzat har daiteke?

Horrez gain, tratamendu aringarriek emakumearengan eta osasun sistemarengan koste-ekonomiko handia suposatzen dute. GI larria daukaten emakumeek 900 euro gastatzen dituzte urtero gaixotasunaren zainketetan (33). Urte bakar batean xurgatzaileek 154 milioiko kostua suposatu zuten Espainian, eta Osasun Sistema Nazionalaren (OSN) prestazio farmazeutikoaren %3.2a suposatu zuten (28). Gainera, ZPME ez egiteak konplikazio gehiago dakar, garestiagoak

diren tratamenduen beharra handituz (30). Guzti honek arazo larria suposatzen du osasun sistema eta biztanleriarentzat, populazioa zahartzen den heinean, gero eta emakume gehiagok GI pairatuko dutelako eta hau tratatzeko kostuak handituko direlako (32).

Aipatutako arazoak murrizteko eta prebenitzeko ZPME aukera egokia izan daiteke (30,34). Hala ere, oraindik kontraesanak daude ariketa hauen eraginkortasunean, ikerketetan lortutako datuak %70ko eraginkortasuna izatetik (35) %52koa izatera aldatu daitekeelako. Honek fidagarritasuna kolokan jartzen du (36). Entrenamendu mota honen limitazioen artean, arrakasta lortzeko pazienteek atxikipena eta motibazioa izan behar dutela dago (30).

Aipatutako guztia dela eta, emakumearen motibazioa baloratzen eta elikatzen duen profesional baten beharra dagoela argi dago, ariketa hauek modu egokian eta jarraian egiteko: Erizainak. Erizainak lehenengo mailako arretan eta zenbait ospitalizazio zerbitzuetan ariketa hauek azaltzen dituzte, banakako edo taldeko saioetan (37). Horrez gain, ZPME erizaintzako konpetentzien barnean sartzen da zalantza barik, "North American Nursing Diagnosis Association" (NANDA) (38) internazionalak jasotzen duen moduan "NIC 0560: Ejercicios del suelo pélvico" interbentzioan. Gainera, arlo guztietako erizainek gernu- kontinentzia sustatu dezakete, heziketa jarraituaren eta beharrezko zainketak emanez GI duten pazienteei edo hau izateko arriskua dutenei (39).

Laburbilduz, erizainek berebiziko garrantzia daukate prebentzioan, osasun- hezkuntzan eta pazienteen tratamenduaren atxikipenean. Hortaz, lan honen xedea ZPME Kegel ariketen bitartez egitea populazio zehatz batean dituen eraginak aztertzea da. Modu honetan, lan honen bitartez ZPMEak emakumearen GIn zein bizi- kalitatean sortzen dituen aldaketak ezagutzea funtsezkoa dela defendatuko da. Hortaz, erizainek ZPMEren heziketa ebidentzian oinarritutako informazioarekin eman ahal lukete.

HELBURUA

ZPMEren edo Kegel ariketen eragin fisikoak GIn eta bizi kalitatean aztertzea GI duten emakume posmenopausikoetan.

METODOLOGIA

Diseinu mota

Lan honen ikerketa galderari erantzuteko xedearekin, literatura zientifikoaren eraginkortasunezko azterketa kritikoa egin da Gasteizko Erizaintzako Unibertsitate- Eskolan, 2020- 2021 urteen artean.

Bilaketa prozesua

Bilaketa aurrera eramateko, hainbat pauso eman dira. Lehenik, zehaztutako helburuaren hitz gakoak sailkatu dira: zoru pelbikoaren muskuluen entrenamendua edo kegel ariketak, gernu-inkontinentzia, emakume posmenopausikoa, eragin fisikoak eta bizi- kalitatea. Beraien sinonimoak identifikatu dira, ingelesez zein gazteleraz . Ondoren, hitz gakoak eta sinonimoak lengoaia naturaletik kontrolatura bihurtu dira, datu- baseetan erabiliko diren deskriptoreak lortuz.

Orokorrean, "**zoru pelbikoaren muskuluen entrenamendua"** eta **"Kegel ariketak"** literaturan maiz sinonimotzat hartzen diren kontzeptuak dira, nahiz eta erabateko adostasuna ez egon. Hortaz, lanean biak barneratu dira. Kontzeptu hauen deskriptoreak lortzea zaila izan da (soilik Cinahl eta Embase datu- baseetan aurkitu dira) eta bilaketak emankorrak izateko kontzeptuak banakatu dira, lengoaia kontrolatuko baliokidea lortzeko deskriptoreak konbinatuz ("zoru pelbikoa" eta "entrenamendua"). Horregatik, bilaketa bibliografikoak egiterakoan "kegel ariketak" eta "zoru pelbikoaren muskuluen entrenamendua" -ren deskriptoreak ez zeudenean, lengoaia naturalean bilatu dira eta lengoaia kontrolatuan "zoru pelbikoa" gehi "entrenamendua"- ren deskriptoreak erabili dira. Lehenengo kontzeptu hau definitzeko erabilitako deskriptoreak hurrengoak izan dira*: "pelvic floor muscle training", "kegel exercises", "pelvic floor muscles", "pelvic floor", "exercise therapy"*… Bigarrenik, **"gernu- inkontinentzia"** kontzeptua dago, *"urinary incontinence"* deskriptorearekin definitu dena. Lanean edozein GI mota aztertzen dituzten artikuluak barneratu direnez ez da kontzeptu honen desglosatzea egin. Ondoren, **"emakume posmenopausikoak"** definitzeko *"postmenopause"* eta *"menopause"* deskriptoreak erabili dira. Bi kontzeptu hauek ondo bereizten ez dituzten ikertzaileak daudenez, biak onartu dira. Lanaren helburua **"eragin fisikoak"** lantzen dituzten artikuluak aurkitzea da (klinikari erreferentzia egiten diotenak), baina ez denez deskriptorerik lortu, "eraginak" kontzeptua erabili da. Bilaketak egiterakoan emaitza egokienak lortu dituen deskriptorea "*treatment outcome*" izan da. Azkenik, **"bizi- kalitatea"** definitzeko *"quality of life"* deskriptorea erabili da. Aipatutako kontzeptuak, hitz-klabeak eta deskriptoreak *3. eranskineko* kontzeptu- taulan bilduta ikusi daitezke.

Ondoren, datu- baseetan egingo diren bilaketa ekuazioak eraiki dira, aurretik aipatutako hitz-gakoak edo deskriptoreak operadore boleanoekin konbinatuz (AND/OR). Bilaketa- ekuazioak

zehatzenetatik zabalenetara egin dira, emaitzen arabera kontzeptuak kenduz, bilaketa emankorrenak lortzeko.

Aipatutako bilaketa ekuazioak Cinahl, Cochrane, Cuiden, Embase, Lilacs, Medline, Pubmed eta Scoups datu- baseetan erabili dira. Bilaketa horietaz gain, ebidentzian oinarritutako erakundeetan bilaketak egin dira: JBI, NICE eta RNAO erakundeetan. Azkenik, eskuzko bilaketak egin dira EHUko liburutegian eta hurrengo aldizkari elektronikoetan: Brazilian Journal of Physiotherapy, Journal of Clinical Nursing, Journal of Physiotherapy, Maturitas, Neurourology and Urodynamics eta The Journal of Urology. Bilaketa ekuazioak eta erabilitako informazio iturriak *4. eranskineko* bilaketa- taulan jasota daude.

Literaturaren hautaketa kritikoa

Bilaketa- prozesuan zehar, artikuluen hautaketa kritikoa egiteko barneratze- eta kanporatze- irizpideak finkatu dira, lanaren helburuari egokitzen diren artikuluak bilatzeko eta hautatzeko.

Barneratze- irizpideak:

- Artikulu mota: kasu- kontrolak, kohorteak, entsegu klinikoak, behatzaileak eta errebisio sistematikoak (guztiak *full text*- an lortzeko aukera izanda). GrAL eraginkortasunezkoa denez, artikulu kuantitatiboak erabiliko dira, ebidentzia handikoak eta hipotesia lantzen dutenak direlako.
- Helburua: GrALren helburuari erantzuten dioten artikuluak. Beraz, ZPMEren eraginak aipatutako arloetan aztertzen dituztenak barneratuko dira, erizain jeneralistaren konpetentzien barnean sartzen direlako.
- Lagina: emakume posmenopausikoak edozein GIren sintomak dituztenak, haiek direlako interbentzioa landu nahi den biztanleriaren adierazgarri. Artikulu egokienak emakume posmenopausikoak aipatzen dituztenak dira, baina autoreen arteko desadostasunak direla eta, laginean 60 urte baino gehiagoko emakumeak dituzten artikuluak barneratu daitezke.
- Argitaratze- urtea: 2010tik aurrera, ikerketen emaitzak eguneratuak izateko.
- Argitaratze- hizkuntza: ingelesa eta gaztelera, artikuluen irakurketa kritikorako eta emaitzen ulermen egokirako menperatzen diren hizkuntzak direlako.
- Herrialde eta kultura: herrialde eta kultura guztietatik eratorritakoak, faktore hauek ez baitute eraginik jorratutako gaian.

Kanporatzeko- irizpideak:

- Artikulu- mota: barneratze- irizpidetan aipatutako motak ez direnak eta *full text*- an aurkitzen ez direnak, duten kalitate eta ebidentzia baxuagatik.

- Helburua: lan honen helburua lantzen ez duten artikuluak eta ZPMEren eraginak helburuaren bi arloetan aztertzen ez dituzten artikuluak. ZPME erizain jeneralisten konpetentzien kanpo dauden materialak erabiliz lantzen dutenak.
- Lagina: GI posmenopausikoetan ez lantzea, GIren etiologia patologia batengatik izatea (gaixotasun neurologiko batengatik, adibidez) edo GI ez duten posmenopausikoak, ez direlako interbentzioa landu nahi den biztanleriaren adierazgarri.
- Argitaratze- urtea: 2010. urtea baino lehen argitaratu diren artikuluak, ez eguneratutzat kontsideratuko direlako.
- Argitaratze- hizkuntza: ingelesez edo gazteleraz idatziak ez dauden artikuluak, artikuluen ulermen egokia egiteko menperatzen ez diren hizkuntzak direlako.
- Herrialdea eta kultura: ez dira artikuluak kanporatuko irizpide hauengatik, gaian eraginik ez duelako.

Artikuluen hautaketa kritikoa egiteko, emaitzetan erabili diren artikuluak 3 fase gainditu behar izan dituzte. Datu- baseetatik lortutako artikuluak 292 izan dira. Lehenengo fasean, artikuluen izenburua eta *abstract*- ren irakurketa egiterakoan barneratze zein kanporatze irizpideak betetzen ez dituzten, errepikatuak dauden edo lanaren helburu berdina ez duten artikuluak kanporatu dira. Horren ostean, 26 artikulu daude helburuari erantzun diezaioketenak. Bigarren fasean, artikuluen irakurketa osoa egin da eta *full text*- an eskuragarri ez daudenak kanporatu dira. Irakurketa osoa egiterakoan, oraindik kanporatze- eta barneratze irizpideak betetzen ez dituzten artikuluak baztertu dira. Fase honetan, eskuzko bilaketaren 3 artikulu gehitu dira. Baheketaren ostean, 15 artikulu daude. Hirugarren fasean, artikuluen irakurketa kritikoa egin da gidoi bat jarraituz, kalitatea ziurtatzeko. Irakurketa kritikoaren arabera, helburuari erantzuteko 15 artikuluak egokiak direla erabaki da. Artikulu bakoitzaren analisia gidoiaren arabera *5. eranskinean* ikusi daiteke eta hautaketa prozesu guztiaren laburpena *6. eranskineko* fluxu diagraman kontsultatu daiteke.

Aztertzeko eta interpretatzeko prozesua

Bibliografiaren hautaketa kritikoa amaitu ostean, lortutako 15 artikuluen emaitzak errazago interpretatzeko xedearekin artikulu bakoitzaren laburpen taula osatu da, kronologikoki ordenatu dena, non artikuluaren egileak, herrialdea, argitalpen- urtea, helburua, diseinu mota, lagina, interbentzioa eta emaitzak zein ideia nagusienak modu argian eta zehatzean jaso diren. Taula hau *7.eranskinean* ikusi daiteke.

Azkenik, artikuluen ideia nagusiak aztertu eta interpretatu ostean, artikuluen emaitzak kategorietan sailkatu dira. Hauek antolatzeko helburuarekin *8. eranskinean* kontsultatu daitekeen zuhaitz- kategoriala osatu da.

EMAITZAK ETA EZTABAIDA

15 artikulu izan dira lanaren helburuari erantzuteko baldintzak bete dituztenak. Atal honetan, artikuluetan aztertutako emaitzak modu antolatuan aurkeztuko dira, baina horretarako, lehenengo artikuluen ezaugarriak azaldu behar dira.

Ikerketen ezaugarriak

Ikerketen interbentzioen arabera, bi diseinu mota ezberdindu dira: 13 artikulu esperimental (11 ausazko entsegu kliniko, kuasiesperimental bat eta preesperimental bat) eta 2 artikulu behatzaile (*4. irudia*). Aukeratutako artikulu guztiak kuantitatiboak dira.



Irudia 4. Artikuluen diseinu- motak.

Artikuluen argitalpen- hizkuntzari dagokionez, 14 artikulu ingelesez argitaratuak izan dira eta bakarra gazteleraz. GrALean barneratutako artikuluak 2011- 2021 urteen artean argitaratuak izan dira. Artikuluen %33a Brasilen egindako ikerketak dira, hots, 5 ikerketa. Bestelako artikuluak Kanadan, Egipton, Espainian, Estatu Batuetan, Erresuma Batuan, Suitzan eta Turkian egindako ikerketak dira (*5. irudia*).



Irudia 5. Artikuluak urteko eta herrialdeko.

GrAL honetan, helburua ZPMEren eraginak GIren zeinu zein sintometan eta bizi- kalitatean aztertzea izan da. Lehenengo taldean, gernu- galerak, mikzio- maiztasuna, txiza egiteko urgentzia eta nikturia daude. Bigarrenean, sexu- funtzioa eta EBJk daude (alderdi hauekin kategoria- zuhaitza osatu da).

GIren zeinu eta sintomak

GI emakume posmenopausikoetan eragin handia duen gaixotasuna da, sortzen duen klinikagatik. Orokorrean, ZPMEak GIren sintometan dituen eraginak ikertu dira artikulu gehienetan (40-52), alderdi fisikoak duen garrantzia azpimarratuz. 6 ikerketen emaitzen arabera (41-43,45,49,52), ZPMEren ostean emakume posmenopausikoen klinika eta GIren larritasuna esanguratsuki murriztu zen.

ZPME arnas ariketekin konbinatzerakoan edota ZPME entrenamendu abdominopaelbikoarekin alderatzerakoan, klinikaren murrizpen handiagoa ematen zela ondorioztatu zuten bi ikerketek (43,46). 2019an Egipton egindako ikerketan (43), GIren zeinu eta sintomak esanguratsuki murriztu ziren ZPMEren taldean, baina arnas ariketen gehigarria zuen taldeak areagotze handiagoa izan zuen ZPMen indarrean. Honen arrazoia ZPMen, sakoneko muskulu abdominalen eta diafragmaren arteko erlazioarengatik izan daiteke. Ariketa hipopresiboak egin zituzten emakumeek hobekuntza handiagoak izan zituzten beraien abdomen barneko presioa gutxitu zelako (diafragma erlaxatzean) eta horrek maskuriaren presioa murriztu dezake ere. Gainera, arnas ariketen bitartez ZPMen aktibazioa lortzen da. Martinho eta besteen ikerketan (46), hobekuntza esanguratsuak eman ziren bi taldeen ZPMen indarrean (talde batek entrenamendua gimnasia pilotarekin eta beste taldeak entrenamendu abdominopelbikoa birtualki egin zuten). Hala ere, entrenamendu abdominopelbikoa egin zuen taldeak hobekuntzak aurkeztu zituen batez

besteko indar maximoan eta erresistentzian. ZPME pilotarekin egin zuten emakumeek, aldiz, hobekuntza esanguratsua aurkeztu zuten indar maximoan. Honek adierazi dezake ZPME uzkurdura azkarrak egiteko indarra areagotzen duela eta entrenamendu abdominopelbikoarekin elkartzerakoan, uzkurduran erresistentzia ere lortzen dela. Beraz, banakako bi modalitateek ZPMen indarra handitu zuten, GIren sintomen murrizpena eragiten.

Aurreko emaitzekin batera, 2018an egindako ikerketarenak (44) gehitzen dira, non ZPME jaso zuten emakumeek (terapia hormonala hartzen ez zutenak) hobekuntza nabaria baina ez esanguratsua aurkeztu zuten ICIQ- UI SF galdetegian (p=0.43), GIren klinikaren murrizpena izanik. Gainera, ZPMen indarrean hobekuntza esanguratsuak aurkeztu zituzten. Horrez gain, ikerketan parte hartu zuten eta terapia hormonala hartzen zuten emakumeek ez zituzten hobekuntza esanguratsuak aurkeztu entrenamenduaren ostean ZPMen indarrean ezta GIren larritasunean. Hortaz, ikerketa honen emaitzei erreparatuz esan daiteke ZPME tratamendu hormonalarekin konbinatzerakoan lortzen diren emaitzak ez direla indartzen.

Gauzak horrela, esan daiteke ZPMEak GIren klinikaren hobekuntza orokorra dakarrela, nahiz eta artikulu batean lortutako emaitzak esanguratsuak ez izan. Gainera, ZPME arnas- ariketekin konbinatzerakoan lortzen diren emaitzak indartzen dira. Terapia hormonalarekin konbinatzeak, ordea, ez ditu hobekuntza handiagoak suposatuko interbentzioaren eraginkortasunari dagokionez.

Gernu- galerak

Hainbat artikulu dira gernu- galeren aldagaia ikertu dutenak (47- 52), GIren zeinu nagusiena da eta. Horietatik, 4 artikuluetan (47,49-51) hobekuntza esanguratsuak eman ziren gernu- galeren murrizpenean ZPMEren ostean.

Hobekuntza aipagarrienen artean, 2014an Turkian egindako ikerketarenak (47) daude, non emakume posmenopausikoen %56.7ak hobekuntzak aurkeztu zituen ZPM indarrean. Beraz, ZPMEren bitartez muskuluen masa zein funtzioa mantentzen eta hobetzen da, ZPMen indarra handituz eta gernu- galerak murriztuz. Nygaard eta besteen lanean (49), emakume posmenopausikoen %51.4ak hobekuntzak somatu zituen gernu- galerei dagokionez eta %11.4ak ez zituen galera gehiagorik izan, aldaketa esanguratsua aurkeztuz. Emaitza antzekoak aurkitu ziren Madill eta besteen lanean (50), non posmenopausikoen %75ak gernu- galeren maiztasunaren hobekuntza somatu zuen ZPMEren ondoren. Halaber, 10 emakumek ez zituzten gernu- galera gehiagorik aurkeztu. Hobekuntza hauei, 2012an Brasilen egindako ikerketarena (51) gehitzen zaie, non emakumeek 1.9g- tako gernu- galerak izatetik 0.2g- tako galerak izatera pasa zuten.

Nahiz eta aldaketak esanguratsuak izan ziren ez aipatu, 2013an Suitzan egindako ikerketan (48) zein Sherburn eta besteek (52) egindako ikerketan, hobekuntza garrantzitsuak eman ziren gernu-

galerei dagokionez. 2013an Suitzan egindako ikerketan (48), emakume posmenopausikoen %44.3ak ez zituen GIren gertakari garrantzitsurik izan interbentzioaren ostean eta %25.31ak ez zituen berriz GIren gertakaririk izan. Sherburn eta besteen ikerketan (52), interbentzioa amaitzerakoan %51.2ak zioen ez zituela gernu- galerarik izaten eztularekin eta %60.5ak ez zituen galerarik ariketa fisikoa egiterakoan. Horrez gain, aste bateko gernu- galerak baloratzerakoan ia erdira murriztu ziren (%47).

Aipatu behar da, 2014an Turkian (47) egindako ikerketan 3 taldeek hobekuntza esanguratsuak aurkeztu zituztela ZPMen indarrean, baina ikusi zen emakume premenopausikoen (%59) eta posmenopausikoen (%56.7) hobekuntzak menopausikoenak (%43.7) baino handiagoak izan zirela. Nygaard eta besteen ikerketan (49) eta 2013an Suitzan egindako ikerketan (48), ez ziren ezberdintasun esanguratsurik eman talde posmenopausiko eta premenopausikoen artean, hala ere, Nygaard eta besteen ikerketan (49) emakume premenopausikoen hobekuntzak handiagoak izan ziren. Premenopausikoen emaitzak hobeagoak izatearen azalpena, breaien egoera estrogenikoak ZPMen osasunean positiboki eragin dezakeelako izan daiteke, ZPMen funtzioaren eta morfologiaren mantenimendurako estrogenoen beharra dagoelako.

ZPME beste metodoekin konparatzen dituzten artikuluak ere aurkitu dira (51,52), hala nola, kono baginalak eta jokabidezko terapia, gernu-galerak murriztearen helburua zutenak. Brasilen 2012an egindako ikerketan (51), ZPME kono baginalekin konbinatu zituzten emakumeek murrizpen esanguratsua aurkeztu zuten gernu- galeretan, baina interbentzioaren osteko entrenamenduaren atxikipenaren balorazioan ZPMEren taldekoak baino hutsegite handiagoa izan zuten 3. hilabetean, materiala erabiltzeko beharrarekin erlazionatu daitekeena. 12. hilabetean, bi taldeek atxikipenaren jaitsiera antzekoa aurkeztu zuten eta ZPMen indarraren galera eman zen. Beraz, ZPMen indarraren galeraren eragilea ZPMErekiko atxikipenaren murrizpena izan daiteke. Sherburn eta besteen ikerketan (52), ZPMEren eraginak jokabidezko terapiarenarekin alderatu ziren, non emaitza guztiak ezberdintasun esanguratsuak izan zituzten ZPMEren alde. Beraz, jokabidezko terapia bakarrik erabiltzea ez da ZPME baino hobeagoa izango.

Labur esanda, ZPMen indarra lantzen denean, GIren galerak murrizten dira, muskuluen funtzioa hobetzen delako. Hala ere, denboran mantendu behar den entrenamendua da eta teknikari konplexutasuna emateak (kono baginalekin, adibidez) emaitza esanguratsuagoekin lotuta egon daiteke, baina tratamenduaren atxikipena murriztu dezake. Hortaz, indibidualizatu behar den erabakia da, emakumearen motibazioaren eta baliabideen arabera. Azkenik, esan daiteke emakume posmenopausikoetan eraginkorra den tratamendua dela gernu- galerentzako, nahiz eta premenopausian emaitza hobeagoak izan.

<u>Gernu- egite maiztasuna</u>

Orokorrean, fisiologikotzat hartzen den maiztasuna 6- 8 arteko gernu- egite egunean da, 2 orduro edo gutxiagotan egitea baino erosoagoa dena (40). Gernu- egiteen maiztasuna ikertzen dituzten artikuluak 3 dira (40,49,50). Aldagai honen hobekuntza 3- 4 orduko tarteak lortzen direnean amaitu beharko zen, albo- ondorioak izan ditzakeelako.

Wu eta besteen ikerketan (40), 20 minutuko ZPME birtualak gernu- egiteen arteko tarteak esanguratsuki murriztu zituen. ZPME denboran mantendu ahala tarteak handitzen joan ziren, nahiz eta 12. eta 24. hilabeteetan bataz bestekoa berdina izan. Azken emaitza hau positiboa izan daiteke, 3- 4 ordu baino gehiagoko tarteak daudenean infekzio arriskua dagoelako. Aldagai honetan ez ziren ezberdintasun esanguratsurik antzeman 2 ordutako ZPME egiten zuten emakumeekin alderatzerakoan. Beraz, ez zen ZPMEren bi modalitateen artean (presentziala zein birtuala) egokiena erabaki.

Aitzitik, Nygaard eta besteen ikerketan (49), ZPMEren ostean emakume posmenopausikoen %51.4ak hobekuntzak antzeman zituen gernu- egiteko maiztasunean, nahiz eta hasieran egindako balorazioarekin alderatzerakoan aldaketa ez esanguratsua izan (p=0.090). Modu berean, Madill eta besteen ikerketan (50), ZPME amaitzerakoan gernu- egite maiztasunaren beherakada antzeman zen emakume posmenopausikoetan, baina ez zen esanguratsua izan (p=0.11). Hala ere, ikertzaileek espero zuten emaitza zen, laginaren ezaugarriei erreparatzerakoan, egunean 8 mikzio egiten zituztelako, beraz, tarte fisiologikoaren barnean dagoen datua da eta ez zituzten aldaketa esanguratsurik espero alderdi horretan.

Laburbilduz, ZPMEak gernu- egiteen murrizpena eragiten duela esan daiteke, birtualki zein presentzialki egiten denean. Hala ere, ikerketa gehiago egin beharko litzateke, murrizpen hori esanguratsua dela baieztatzeko.

<u>Txiza egiteko urgentzia</u>

UGIren sintoma oinarrizkoena da eta komunera korriketan joateko beharra dagoela esan nahi du, bestela, gernu- galera egongo delako (40). Aldagai hau 2 artikuluk ikertu dute (40,49) eta biek hobekuntza esanguratsuak aurkeztu zituzten txiza egiteko urgentzia gertakarien murrizpenean. Wu eta besteen ikerketan (40), 20 minutuko ZPME birtuala jaso zuten emakumeek eta 2 ordutako ZPME egindako emakumeek hobekuntza esanguratsuak aurkeztu zituzten urgentzia gertakarietan, taldeen arteko ezberdintasun esanguratsurik gabe.

Emaitza positiboa hauei, Nygaard eta besteek (49) antzemandakoak gehituko dira, non emakume posmenopausikoen %60ak (premenopausikoetan %55.3ak) hobekuntzak somatu zituen urgentziazko gertakarietan ZPMEren ostean. Taldeen arteko portzentaiek ezberdintasun txikia izan arren, UGIren prebalentzia altuena posmenopausian da. Hala ere, emakume gazteen sintomen hobekuntza nahiko altua izan zen. Horren arrazoia izan daiteke UGIk ez diola EGIk bezain ondo erantzuten tratamendu fisikoari, beraz, faktore horri adineko emakumeen

estrogenoen defizita gehitzen baldin bazaio, arrazoizkoa da interbentzioaren ostean izandako sintomen hobekuntza emakume premenopausikoen antzekoa izatea, nahiz eta GI mota hori prebalentzia handiagoa izan posmenopausikoetan.

Hori dela eta, esan daiteke ZPME eraginkorra dela urgentzia gertakariak murrizteko. Hala ere, soilik 2 artikuluk UGIren sintoma deserosoena aztertu izanak, sintoma horrekiko edo pairatzen duten emakumeak tratatzeko interes baxua dagoela ondorioztatzera eraman dezake. Hortaz, gehiago aztertu beharko litzateke, UGIn ZPMEren eraginei buruzko ikerketa gutxi daudelako.

Nikturia

Behin lo egonda txiza egiteko altxatzeko beharra (gauean behin edo gehiagotan) bezala definitzen da eta beheko gernubideko sintoma deserosoenetarikoa da (40). 2 artikuluetan (40,49) sintoma honen azterketa egin zen eta bietan nikturia gertakarien beherakada esanguratsua eman zen ZPMEren ostean.

Wu eta besteen lanean (40), 24. hilabetean 20 minututako banakako saioak jaso zituzten emakumeek nikturia gertakari gutxiago izateko joera aurkeztu zuten (p=0.005) 2 ordutako taldeko saioak jaso zutenekin alderatuz. Ez dago argi ezberdintasun honen arrazoia, baina ikerketaren limitazioen artean, partehartzaileek edaten zuten likido kopurua baloratzea falta zen. Agian, talde bateko emakumeak beste taldekoak baino likido gehiago hartzen zuten eta gauean nikturia gertakari gehiago izaten zituzten. Nygaard eta besteen ikerketan (49), emakume posmenopausikoen %45.7ak hobekuntzak pairatu zituen sintoma honetan. Alabaina, nikturiaren okerragotzea eman zen posmenopausikoen %22.9an. Aldiz, premenopausikoetan soilik %2.1ak okerragotzea adierazi zuen sintoma honetan. Bi taldeen artean ezberdintasun esanguratsua egon zen sintoma honekiko. Honen arrazoia, posmenopausian dauden emakumeek nikturia izateko komorbilate handitua dutela izan daiteke, ZPMEren eraginak makalduz.

Emaitza hauei erreparatuz, esan daiteke ZPME indibidualki zein taldeka edo posmenopausikoetan zein premenopausikoetan nikturian positiboki eragiten duela eta antzemandako ezberdintasunak partehartzaileen ohiturekin erlazionatu daitekeela, jasotako interbentzioarekin baino.

Bizi- kalitatea

GIa gaixotasun nahiko ohikoa da emakumeen artean eta gaixotasunaren klinikak duen eragin sozial eta psikologikoek emakumearen bizi- kalitatean nabarmen eragiten dute (52). Bizi-kalitatea lantzen dituzten 9 artikulu (18,41,42,45,48,50-53) aurkitu dira. Horietatik, 4 artikuluetan (45,50,51,53) emakume posmenopausikoen bizi- kalitatea neurtzen zituzten galdetegietan hobekuntza esanguratsuak eman ziren ZPMEren ostean. Horien artean, Alves eta besteen ikerketan (45) zein Bertotto eta besteen ikerketan (53), bizi- kalitatean izandako emaitza

esanguratsuak ZPMen indarrean emandako hobekuntza esanguratsuekin erlazionatu daitezke. Beraz, ondoriozta daiteke entrenamenduak ZPMen kontrola izatera laguntzen duela, GIren sintomak tratatuz eta gaixotasunak bizi- kalitatean dituen eraginak murriztuz.

ZPME beste metodoekin konparatzen dituzten 3 artikulu (51-53) aurkitu dira, bizi- kalitatea hobetzea helburu dutenak. 2012an Brasilen (51) kono baginalekin egindako konbinaketan zein Bertotto eta besteek (53) biofeedbakcarekin egindako konbinaketan, ZPME bakarrik egiten zirenean baino emaitza esanguratsuagoak lortzen zirela ikusi zen bi ikerketetan: terapia hauek gehitzerakoan, ZPMak indartzen dira, sintomak murrizten dira eta bizi- kalitatea hobetzen da. Erlazio positiboa duten faktoreak dira, ZPMen indarra hobetzean bizi- kalitatea hobetzen de. Aldiz, Sherburn eta besteen ikerketan (52), ZPMEren ostean emakumeek bizi- kalitatearen hobekuntzak somatu zituzten galdetegien emaitzetan ikusi zen bezala, baina jokabidezko terapiarekin alderatzerakoan, ez ziren ezberdintasun esanguratsurik aurkitu taldeen artean (p=0.836). Hortaz, bi interbentzioek bizi- kalitatea hobetu dezakete, baina ikerketa gehiagoren beharra dago, datu esanguratsuak behar direlako.

